

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**2020 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta udal prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa. Hasiera onarpena. (Espediente: 2019/8/S893)**

Laudioko Udalbatzak, 2019ko uztailaren 29 egunean egin zuen osoko bilkuran, onartu egin zituen behin behineko izaeraz 2020 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta udal prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketak.

Uztailaren 19ko 41/1989 foru Arauko 16. artikuluan ebatzitakoarekin bat, jakinarazten da behin behineko izaeraz onartu diren zerga ordenantza eta tasen eta udal prezio publikoak arautuko dituen ordenantzako testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49-b). artikuluan erabakitakoarekin bat (41/1989 Foru Arauko 50. artikuluekin bateratsu), jendearen eskura jarrita daudela, Udaletxeko Ekonomia era Zerga Kudeaketa Zerbitzuan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 30 eguneko epearen barruan, herritar interesatuek goki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko; azpimarratu behar da erreklamaziorik ez bada aurkezten erabaki horren aurka erakustaldiaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.

Laudio, 2019ko abuztuaren 26a

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*